

155.17. Kirola, dantza eta generoa

Urteak dira erakunde publikoek kirolaren sustapen-lanetan dihardutela. Eskola Kirola moduko kanpainak antolatzen eta finantzatzen dituzte erakunde publikoek. Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, Lehen Hezkuntzako ikasleen % 80k parte hartzen du Eskola Kirolean. Mutilen eta nesken arteko desoreka handia zen orain 30 urte (% 80 gizon. % 20 emak.); hala ere, emakumeen kirolaren sustapen-kanpainak datuak orekatzen ari dira (% 60 gizon. % 40 emak.)

Dantza ez da kiroltzat jotzen normalki. Dantzak ez du kirolak duen babes instituzionalik, ez azpiegitura-sarerik; hala ere, Gipuzkoan astero 10.000 lagun aritzen dira euskal dantzan. Horri gehitu beharko litzaizkieke beste dantza motak: balleta, moderna, garaikidea, areto-dantzak, kaleko dantzak... Gehienak emakumeak. Kirol-estatistiketan ez da jasotzen dantzaren berri; beraz, dantzan ari direnak, dantzaz gain kirolik egiten ez badute, pasibotzat jotzen dira. Alegia, dantzariak fisikoki aktibatu beharreko herritartzat jotzen dira, dagoeneko aktibatuta, dantzan ari direla kontuan hartu gabe. Aisialdirako jardueren eskaintza zabalaren erdian, baliabide eta babes urriekin lehia-tzen da dantza.

Ume guztiei gustatzen zaie dantza egitea. Musikak eragiten dizkigun sentipenak gorputzaren bidez azaleratzea gizaki guztiok dugun gaitasuna da; izan ere, ahalmen horrekin jaiotzen gara. Hazi ahala emakume gehienek gaitasun hori landu eta garatzen dute, eta gizonezko gehienek baztertu eta desaktibatzen dute. Umeei jaio orduko adierazten diegu zein den asignatu diegun genero-identitatea; genero bakoitzari lotutako jarduera estereotipatuetan trebatzen dira, beraien identitatea beste generoarekiko oposizioz eraikiz. Horrela, kirola, oro har, mutilen jardueratzat identifikatzen dute umek eta dantza nesken jardueratzat. Beraz, eskola-kirolaren garaia iristen denean ahalegin berezia egin behar da emakumeak kirolera hurbiltzeko, zenbait urtez neska asko aldenduta izan baita kirolek, praktika maskulinoa zelakoan. Horrela, nagusiki dantzan aritu diren neskek kirolera bultzatzen dira; bertan, ordura arte kirola besterik egin ez duten mutilekin topo egiten dute.

Gizonezko gehienek dantza emakumeen jardueratzat daukate, ez dute ezagutzen eta ez dute balioan jartzen. Ez dakite dantza ondare kulturala izateaz gainera, osasunerako kirola bezain onuragarria dela. Arrotzak zaizkie dantzak eragiten dituen emozio eta plazer fisiko eta intelektualak, orekan eragiten dituen onurak, adimenaren, espazioaren eta dimentsioen antolaketan eta ongizate fisiko eta mentalean egiten dituen ekarpenak. Gizonezko gehienek ez dakite nola laguntzen duen dantzaren praktikak norbanakoaren garapen pertsonalean, intelektualean, afektiboan eta sozialean.

(...)

Norbaitek azal diezadake zergatik ari den kirola sustatzen eta dantza baztertzen? Norentzat da hobea kirola sustatzea eta dantza baztertzea? Zergatik ez dugu dantza balioan jarri, dantza sustatu eta gizonezkoak dantzan aritzera bultzatuko dituen politika publikorik?